

MUko ikasleak Bidarteko ESTIAk antolatutako "24H of Innovation"- en.

2010/10/29

Mondragon Unibertsitateko Diseinuko ikasleak Bidarteko ESTIA ingeniari-tza eskolak antolatutako "24H of Innovation" lehiaketan parte hartu zuten joan zen ostiralean. Mondragon Goi Eskola Politeknikotik Industri Diseinua Gradu-ko eta Diseinu Estrategikoa masterreko ikasleak joan ziren, 24 orduz jarraian lehiaketa honetan parte hartuz. Lehiaketan Frantziako eta Espainiako enpresek proposatutako produktuaren diseinu eta berrikuntzarekin lotutako hainbat gai landu ziren.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikasleek garatutako bi proiektuak saria jaso zuten. Alde batetik, belarrietako tapoien inguruan garatutako proiektuak MARKETING PROIEKTU onenaren saria jaso zuen. Bestetik, sukaldeko plantxen inguruan egindako proiektuak, PROIEKTU BERRITZAILLEENAREN kategorian hirugarren saria jaso zuen.

Bideo honetan ikusi daiteke

lehiaketa: <http://www.youtube.com/user/24hofinnovationTV#g/u>

